


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**FRANTZIA PASEALEKUA 4**

Egilea eta data: Eduardo Lagarde; 1935.

Deskribapena

Bigarren eraikina –4 zenbakia–, aurrenekoa bezala, mantsardaren ereduzko profiletik bereizten da, oin bat gutxiago duelako; kutsu nahiko monumentaleko ezaugarri neobarrokoak dituen fatxada dauka, pilastrak, frontoiak eta, behe oinean, etxeko atarira sartzeko eta ibilgailuak sartzeko kale nagusi gisako sarbidea du. Ataritik, eskailerez eta igogailuz osaturiko gune trinko batera heltzen da. Eduardo Lagardek 1935ean egindako proiektua da, hiriaren beste muturrean, arkitektura modernoa erabiliz beste etxe batzuk eraikitzen ari zen bitartean. Geltokiaren eta Santa Katalina zubiaren artean 1912. urtetik aurrera eraikitako jauregi itxurako eraikin bateratuen multzoaren barruan kokatzen da. Multzoa osatzen duten zazpi eraikinak bakartuak dira, sarrera pasealekutik dute eta lorategi pribatuz inguratuak daude. Etxearen jabetza etxebizitzetan banaturik dagoenean, lorategi pribatu horiek behe oineko edo bastardeko etxebizitzak jabeenak dira. Harlanduzko oinarrien gainean lursailen burdinazko itxiturek multzoaren batasuna gordetzen dute diseinu diferentekoak izan arren.

Babes erregimena.

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berriazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak: ez.
 - B.- Babesaren xede diren elementu iraunkorrak: fatxada osoa; lorategiaren itxitura.
Dena den, lorategiaren itxitura horiek desmuntatu eta berriro eraiki daitezke, sarbideak ireki daitezke, eta lursail eta eraikuntza horien erabilerei loturiko premiengatik justifikatutako aldaketa mugatuak egin daitezke. Dena den, kasu horietan guztietan egin daitezkeen proposamenek lorategiak gaur egun dituen itxitura soluzioak errespetatu eta imitatu beharko dituzte. Proposatutako lanak baimenduko dira aurretik aipaturiko helburu hori behar bezala betetzen badute, eta hala egingo denaren bermeak zehaztu ondoren.
 - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: "Frantzia Pasealekua" E mailako multzo katalogatuaren barruan egotearen ondoriozkoak; estalkiko frontoia eta balaustrada mantenduko dira; ez dira jasodurak baimentzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.